



Pasaiaiko Udala
Ayuntamiento de Pasaia



UNIÓN EUROPEA
Fondo Europeo de
Desarrollo Regional



EUSKO JAILURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA
GIZARTE GAIE TAKO SAILA
Inmigración Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES
Dirección de Inmigración

Komunitatetik kanpoko etorkinen beharren
diagnosia eta prospektiba, Pasaiaiko udalerrian: laburpena eta proposamenak

Aurkibidea

3

Agurra

4

Aurkezpena

6

**Komunitatetik kanpoko
inmigrazioa Pasaian**

Pasaia, Immigrazio gunea
Gipuzkoan

Immigrazioaren bilakaera

Immigranteen jatorria

Sexua eta adina

Kokalekua auzoz auzo

Migrazio proiektua

Egoera juridikoa, soziala eta
lanaren arlokoa

Bizikidetza eta integrazioa

15

**Atzemandako beharrak eta
hobetzeko proposamenak**

Behar orokorrak

Proposamen orokorrak

Harrera eta laguntza

Lan merkatua

Etxebizitza

Hezkuntza eta formazioa

Alor juridikoa

Herritarren parte hartzea

Abegi gizartearen sentsibilizazioa

20

**Eranskina:
Elkarrizketatu ditugun
elkarte eta erakundeak**



Agurra

Pasaian immigrazioaren egoerari buruz egin den lehen azterlanaren laburpena duzu eskura.

Azterlan horren helburua da, nola gizarteak, hala gizarte- eta ekonomia-eragileek tresna erabilgarria izatea, immigrazioa aberasgarri eta garapenerako lagungarri izan dadin, bai maila ekonomikoan, bai eta kultura eta gizarte mailan ere

Azterlanaren datuen bidez, bertakook eta etorkinek gizarte-errealitatea hobeto ezagutzeko aukera izango dugu. Gure identitatea eta kanpoko errespetatuz, elkarren berri izateak eta immigrazioaren egoera ezagutzeak jarduerak egiteko aukera emango digute, giza-eskubideen

alorrean gure herria ireki eta solidario agertuko dutenak, betiere kulturartekotasunaren pentsamenduan oinarritua.

OARSOALDEari eman zitzaion azterlan hau egiteko enkargua eta bertan zuzenean parte hartu dute udaleko Gizarte Zerbitzuetako Sailak eta gizarte-eragile eta partikularrek. Guztiei eman nahi dizkiet eskerrak, izan ere euren lankidetzarik gabe ezin izango zen ikerlan hau aurrera eraman.

Horrenbestez, agiri hau izan dadila euskarria, herritarrak lehenetsiko dituen gizartea eraiki dezagun eta denok eskubide eta betebeharrak izan ditzagun, inolako bereizketarik gabe.

Herritar guztiok, jaso ezazue agur bero bat.

Xabier Pombo
Pasaiaiko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako
zinegotzia

O Aurkezpena

4

Pasaiaiko Udalak Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Zuzendaritzarekin akordioa egin zuen udal mailako etorkinen harrera-sarean esku hartzearen. Akordio horren ondoren 2004 urtean **Oarsoaldea Eskualde-garapeneko Sozietateari** agindu zion udalerrian bizi diren Europar Komunitatetik kanpoko etorkinei buruzko azterlana egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko immigrazioaren fenomeno orokorrari erantzuteko, eta bereziki Pasaiaikoari.

Komunitatetik kanpoko etorkinen beharren diagnosia eta prospektiba egiteko ardura Oarsoaldea elkarteak zuzendutako lan talde batek hartu zuen; lan talde horrek Farapi antropologia aplikatuko aholkularitza enpresaren laguntza izan du lan horretan.

Txosten hau **Pasaiaiko** udalerrian bizi diren komunitatetik kanpoko etorkinei buruz egindako ikerketa-diagnosiaren laburpena da. **Immigrazioaren Tokiko Plana** lantzeko oinarri sendo eta kontrastatua emango duten emaitzen eta gomendioen arteko zenbait biltzen dira bertan; baliabide erabilgarriak Europar Batasunetik kanpoko etorkinen artean atzemandako premietara egokitzea eta haiek udalerriko bizitzan integratzeko aukera sustatzea du helburutzat plan horrek.

Pasaian, **tradizio luzea du immigrazioak**; hain zuzen ere, **biztanleria guztiari buruz atzerritarren ehuneko handiena duen Gipuzkoako udalerria da**. Oro har, alde zurretik komunitatetik hona izandako immigrazioaren ondorioz, immigrazio portugesaren ondorioz nagusiki.

Nolanahi ere, azken urteetan, komunitatetik kanpoko immigrazioak nabarmen egin du gora. Eta, hain zuzen ere, Europako Ekonomia Esparrutik kanpoko herrialdeetatik etorri eta eskualde honetan bizi diren etorkinen egoeraz dihardu ikerketa honek. Zehaztu beharra dago ikerketa hau egitean ez direla kontuan hartu beste herrialde batzuetako etorkinak, adibidez, Ipar Amerikakoak, Australiakoak, Japoniakoak, etab., oso bestelako egoera eta beharrak dituztelako.

Ikerketaren edukiari dagokionez, azterketaren helburu orokorren arabera egituratu dira edukiak:

1. Pasaiaiko etorkinen egitura eta ezaugarrien analisia egitea (bilakaera, jatorria, sexua, adina, udalerrian duten kokalekua, etab.).
2. Komunitatetik kanpoko etorkinek hainbat arlotan (lan merkatua, hezkuntza, etxebizitza, osasuna, arlo juridikoa, aisia, herritarren parte-hartzea) duten egoeraren diagnosia egitea eta beharrak identifikatzea.
3. Bertako herritarrek immigrazioari buruz duten jarrera ezagutzea eta bizikidetzeta eta gizarte integrazioa bideratzeko gakoak antzematea.
4. Komunitatetik kanpoko immigrazioari buruz tokiko administrazioak eta bestelako elkarteek egiten duten lana aztertzea (elkarteak, alderdi politikoak, sindikatuak, etab.).
5. Ildo batzuk zehaztea tokiko plan bat diseinatzeko; plan horretan, garapen lerroak adieraziko dira, oinarritzko proposamen batzuk iradokiko dira eta aurrera begira Pasaian bizi diren etorkinak ekonomian, gizartearen eta kulturaren txertatzeko landu beharreko arloak zein diren adieraziko dira.



Ikerketa prozesuan bi ardatz bereizi dira, eta metodo kualitatiboak nahiz kuantitatiboak erabili dira, fase bakoitzaren ezaugarrien arabera:

1 ardatza:

Kolektiboaren osaeraren eta bilakaeraren azterketa. Analisirako esparruak zehaztea.

- Fase honetan, ikerketa nagusiki kuantitatiboa egin zen. Eskuragarri genituen informazio iturrien (eroldak eta estatistikak barne) azterketa xehea egiteaz gainera, beste tresna batzuk ere erabili ziren, metodo kualitatiboan erabili ohi direnak, datuak eta emaitzak alderatzeko eta fidagarritasun gehiago izateko.

2 ardatza:

Etorkinek sumatutako beharren diagnosia, bertako herritarren jarrera eta tokiko administrazioaren eta bestelako elkarten ekintzak:

- Bigarren atalean, ikuspegi kualitatiboa izan zen oinarria, hori baita egokiena fenomeno sozialak eta kulturalak sakon aztertzeko eta ikertu beharreko prozesuaren benetako protagonistei ahotsa emateko.
- Metodologia hori galdeketa¹ sakoneko elkarrizketen eta eztabaida taldeen bidez gauzatu zen.

Ondoren, kolektiboaren ezaugarri nagusiei buruzko datuen **laburpena** eta analisi esparru bakoitzean gizarte eragileek hautemandako beharretatik eratorritako **proposamenak** aurkeztuko ditugu.



1 - Galdeketa egin zaizkie komunitatetik kanpoko 60 etorkini, eroldako biztanleriaren %30,3ri eta bertako 57 herritarri, Pasaiaiko barrutien arabera proportzionalki banatuta: Donibane, San Pedro, Antxo, Trintxerpe. Ikerketa honetan, bateratu egin ziren Trintxerpe eta San Pedro barrutiak, San Pedron oso etorkin gutxi dagoelako.

1 Komunitatetik kanpoko immigrazioa Pasaian

1|1 Pasaia, immigrazio gunea Gipuzkoan

Komunitatetik kanpoko immigrazioaren fenomenoak sortu berria da EAEn, baina gero eta garrantzi handiagoa du, nabarmen **hazi** baita azken urteotan. Lan egiteko adina duten biztanleak dira, **Latinoamerikatik** eta **Afrikatik** etorriak gehienak; ez dira zuzenean beren herrialdetik gure autonomia erkidegora etorri, aurretik Espainiako beste autonomia erkidego batean bizi izan dira, eta handik hurbiltzen dira gurera.


Oarsoaldeko eskualdeko biztanle atzerritar kopurua nabarmentzeko modukoa da **Gipuzkoa** barruan (komunitateko eta komunitatez kanpoko

atzerritarrak kontuan hartuta), eta horren erakusgarri dira ondoko orrialde hauetan aurkezten diren datuak.

Pasaiari dagokionez —atzerritik etorritako biztanle guztiak kontuan hartuta—, **hirugarren lekua** hartzen du **atzerritar** gehien dituzten Gipuzkoako udalerrien artean, Donostiaren eta Irunen ondotik. Horrez gainera, etorkinek bertako biztanleei buruz hartzen duten proportzioa kontuan hartuz gero, **Pasaia da atzerritar gehien dituen udalerria Gipuzkoan biztanle guztiari buruz** (%3,69). Gertaera hori ezin da alde batera utzi immigrazioari buruzko azterketa batean.

Erreterian eta **Eibarren** Pasaiairen antzekoa da atzerritarren kopurua, nahiz eta komunitatez kanpoko biztanleen ehunekoa handiagoa den beste udalerririk horietan. **Lezon** eta **Oiartzunen** atzerritar kopurua dezente txikiagoa da, baina Erreterian, Oiartzunen eta Pasaian antzekoa da komunitatetik kanpoko atzerritarren kopurua biztanleria guztiari buruz.

6



Atzerritarrak udalerriz udalerriz

Herria	Atzerritarrak	Biztanleria guztia	Atzerritarren / biztanleria guztiaren %
1 Donostia	5.087	181.811	%2,80
2 Irun	1.694	58.036	%2,92
3 Pasaia	595	16.145	%3,69
4 Eibar	582	28.182	%2,07
5 Erreteria	576	38.397	%1,50
...
20 Oiartzun	151	9.407	%1,61
35 Lezo	68	6.013	%1,13


Iturria: INE 2003

1|2 Immigrazioaren bilakaera

2003. urteko udan azterketari ekin zitzaionetik Pasaian immigrazioaren fenomenoak izan duen hazkunde lasterra kontuan hartuta, sintesi txosten hau osatzeko berritu egin behar izan dira datuak, eta 2004ko urriko udal erroldari dagozkion datuak aurkeztu behar izan ditugu².

Pasaiaiko biztanleriaren **bilakaera** era honetara azal liteke: etorkin kopuruak gora egin du etengabe, batez ere 2000. urtetik aurrera, eta aldi berean, **biztanleriak, guztira, behera egin du.**

Hamarraldi bat baino pixka bat gehiago da Pasaiaiko **bertako biztanleriaren** bilakaerak beheranzko joera izan duela. Biztanle kopuruak behera egin du, eta 1996. urteaz geroztik, beherapena 200 lagunekoa da batez beste urteko. Dena dela, joera hori ez da atzerritar biztanleriak duen joeraren berdina, izan ere, 1996. urtez geroztik, atzerritar kopurua %50 igo da, eta 190 atzerritar gehiago daude, hau da, batez beste 30 lagun urteko.



²- Edonola ere, 2004. urteari dagokionez, ez dugu sexuaren edo adinaren araberako daturik, beraz, kasu horietan 2003ko udal erroldari dagozkion datuak erabiliko ditugu.

Biztanleriari buruzko **estimazioen** arabera, komunitatetik kanpoko biztanleria kopurua handitu egingo da epe laburrean, eta hori betetzen ari dela adierazten dute erroldaren azken datuek. Azken 15 hilabeteotan, udalerriko erroldan izena emana duten komunitatetik kanpoko kopurua %40 igo da (2003ko uztaila). Pasaiaiko gainerako biztanleriari buruz, komunitatetik kanpoko biztanleen **proportzioa** %1,23 igo da 2003an eta %1,69, berriz, 2004an.


Atzerritarren etorki herrialdeari dagokionez, azken hamarraldian **Latinoamerikatik** eta **Europatik** etorritako taldeek izan dute hazkunde nabarmenena. Talde horiek 10 laguneko hazkundea izan dute urteko; aldiz, Afrikatik edo Asiatik etorritakoen hazkundea apalagoa izan da. Dena dela, 2003-2004 bitartean, hazkunde handiena **marokoarren** eta **errumaniarren** artean gertatu da.

Komunitatetik kanpoko biztanleen bilakaera kontinenteen arabera, Pasaian.

	2003	2004
LATINOAMERIKA	108	138
AFRIKA	65	85
EUROPA	18	41
ASIA	7	9
Guztira	198	273

Iturria: Udal errolda, 2004ko urria

Erroldan izena emandakoen bilakaera (1985-2004)



Iturria: INE 2003 eta Udal errolda, 2004ko urria

13 Immigranteen jatorria


Egiaztatu ahal izan den bezala, komunitatetik kanpoko immigrante gehienak Latinoamerikatik datoz, eta horien atzetik daude Afrikatik, Europatik eta Asiatik (azken herrialde horretatik oso gutxi) etorriak.

Pasaian bizi diren komunitatetik kanpoko etorkinen artetik %75,9 herrialdeetatik etorriak dira, nahiz eta guztira 32 herrialdeetako etorkinak dauden udalerrian. Ekuadorko eta Marokoko etorkinen ehunekoa oso handia da, baita **Errumaniatik**

etorritakoena ere –2003an 11 lagun ziren, 2004an, aldiz, 28—; eta hurrenkera horretan Kolonbia da hirugarren herrialdea. Bestalde, Argentinako etorkinen kopuruak ere nabarmen egin du gora (4 lagunetik 11ra) denbora bitarte horretan.

Komunitatetik kanpoko biztanleen bilakaera kontinenteen arabera, Pasaian		
	2004	%
LATINOAMERIKA	138	%50,55
AFRIKA	85	%31,14
EUROPA	41	%15,02
ASIA	9	%3,30
GUZTIRA	273	%100,00

Iturria: Udal errolda, 2004ko urria



Iturria: Udal errolda, 2004ko urria

Etorkinak zein herrialdeetatik datozen (Pasaian)

HERRITARTASUNA	Guztira	Komunitatetik kanpoko guztiei buruzko %
EKUADOR	57	%20,88
MAROKO	52	%19,05
ERRUMANIA	28	%10,26
KOLONBIA	26	%9,52
DOMINIKAR ERREP.	12	%4,40
ARGENTINA	11	%4,03
ALJERIA	6	%2,20
BRASIL	6	%2,20
SENEGAL	6	%2,20
GUZTIRA	204	%74,73

Iturria: Udal errolda, 2004ko urria

1|4 Sexua eta adina

Sexua

Sexua kontuan hartuta, gizonezkoak emakumezkoak baino pixka bat gehiago dira (%54,04 eta %45,96, hurrenez hurren).

Herritartasunari dagokionez, gizonezko gehiago dago kasu gehienetan, batez

ere marokoarren artean (31 gizonezko eta 13 emakumezko); baina kolonbiarren artean, gehiago dira emakumezkoak (18 emakumezko eta 5 gizonezko), eta ekuadortarren artean alde txikia dago batzuen eta besteen artean (29 emakumezko eta 23 gizonezko).

Adina


Adin multzo nabarmenena 26-40 urte bitartekoa da: %44 hartzen du. Komunitatetik kanpoko etorkinen %87k **lan egiteko adina** dute, hau da, buruaskitasun gaitasun handia eta mendekotasun maila txikia duten biztanle sektorea osatzen dute.

Pasaiaiko erroldan, **65 urteko edo hortik gorako** 5 etorkin bakarrik daude izena emanda; alegia, Pasaiaira datozen etorkinak lan egiteko helburuarekin datoz.


Pasaiaiko erroldan izena emana duten familien artean, 20 dira, guztira, 16 urtetik beherakoak; marokoar eta ekuadortar neska-mutilak gehienak.

Komunitatetik kanpoko biztanleriaren banaketa sexuaren eta kontinentearen arabera			
HERRITARTASUNA	Guztira	Emakumezkoak	Gizonezkoak
AMERIKA	108	60	48
AFRIKA	65	20	45
EUROPA	18	9	9
ASIA	7	2	5
GUZTIRA	198	91	107

Iturria: Udal errolda, 2003ko ekaina



Komunitatetik kanpoko biztanleen banaketa adin taldeen arabera



Iturria: Udal errolda, 2003ko ekaina

15 Kokalekua auzoz auzo



Pasaia konfigurazio guztiz berezia du: **lau barruti**an banatuta dago, tradizioz, eta horietako bakoitzak bere nortasuna eta sentimendua du identitateari dagokionez.

Komunitatetik kanpoko biztanle gehien dituzten **barrutiak Antxo eta Trintxerpe** dira; horietatik, hain zuzen ere, ondoen komunikatuta dauden barrutiak, irisgarritasun handienekoak (garraiobideak), eta batez ere, etxebizitza gehien dituztenak erabiltzeko moduan (eta eraikitzeko lurra ere bertan dago gehien). 2003-2004 bitartean komunitatetik kanpoko biztanleriaren **igoera nabarmena Antxoko eta Trintxerpeko** barrutietan izan dela egiaztatzen da.


Komunitatetik kanpoko biztanleen banaketa Pasaian, barrutiz barruti		
	2003	2004
Donibane	36	34
San Pedro	19	18
Antxo	76	112
Trintxerpe	67	109
GUZTIRA	198	273

Iturria: Udal errolda, 2003ko ekaina eta 2004ko urria

Barruti horietan bizi da biztanle horien herena baino gehiago; gainerako herena **Donibaneko** eta **San Pedroko** barrutien artean banatzen da. San Pedron ez dago ia etorkinik, ziur asko, ez dagoelako etxebizitzarik horien irispidean. Horrez gainera, 2003. eta 2004. urteen bitartean komunitatetik kanpoko lagun kopuruak **behera** egin du barruti horietan.

Komunitatetik kanpoko biztanle aldakuntza barrutiz barruti, Pasaian. (komunitatetik kanpoko guztien arabera ehunekoak)

Iturria: Udal errolda, 2003ko ekaina eta 2004ko urria



Bestalde, barrutien arteko aldakuntza ez denez uniformea, komunitatetik kanpoko biztanleen **proporzioa** aldatu egiten da barruti batetik bestera **biztanle guztiei buruz**. Antxon eta Trintxerpen biztanle horien proporzioak gora egin du: Antxon %1,69 izatetik %2,41 izatera igaro da, eta Trintxerpen, berriz, %1,09 izatetik %1,76 izatera.

Biztanle horien jatorriari dagokionez, ez dago kontzentrazio berezirik. Herritartasun guztiak era berean banatzen dira udalerriko lau barrutietan. Nabarmen samar agertzen diren kasuak honako hauek dira: **Antxon ekuadortarren** multzoa hazi egin da, 2003an 12 lagun izatetik 2004an 22 lagun izatera igaro dira. **Trintxerpen,**

berriz, kasu berezia da **marokoarren** taldea (2003an 4 ziren eta 2004an 12), eta batez ere, **errumaniarrena**, nabarmen handitu baita (2003an 9 errumaniar bizi ziren, eta 2004an 23).



Komunitatetik kanpoko biztanleak-biztanle guztiak proporzioa barrutiz barruti.

Barrutia	Komunitatetik kanpoko bizt.	Guztira	Komunitatetik kanpoko bizt. % 2003an guztira	Komunitatetik kanpoko bizt. % 2004an guztira
Donibane	34	2.434	%1,49	%1,40
San Pedro	18	2.908	%0,66	%0,62
Antxo	112	4.641	%1,69	%2,41
Trintxerpe	109	6.179	%1,09	%1,76
GUZTIRA	273	16.162	%1,23	%1,69

Iturria: Udal errolda, 2003ko ekaina eta 2004ko urria

1|6 Migrazio proiektua

Etorkin gehienek hiru arrazoi nagusirengatik uzten dute beren herrialdea: beren herrialdearen **egoera ekonomikoa** eskasa delako, **gatazka politikoak** daudelako, eta **arrazoi pertsonalengatik**, batez ere familiarrak. Beste kasu batzuetan, beren bizitza kalitatea hobetzeko nahia, lehenengo mundua ezagutzeko lilura, eta proiektu pertsonalak eta/edo profesionalak aurrera eramateko asmoa izaten dira erabaki hori hartzeko arrazoiak.

Etorkin gehienek bakarka egiten dute beren **migrazio ibilbidea**, eta ez da Pasaia izaten beren lehenengo helmuga, aurretik Estatuko beste leku batzuetan egon dira.

1|7 Egoera juridikoa, soziala eta lanaren arlokoa

Egoera juridikoari dagokionez, galdeketa erantzun duten etorkinen hiru heren baino gehiago egoera erregularrean daude, aldiz, erantzun dutenen laurdena baino gutxiago egoera irregularrean daude; dena dela, egoera irregularrean dauden etorkinei buruzko datuak lortzeko zailtasunaren ondorio da hori.

Etorkinek informazio gutxi dute **Atzerritarren legeari** buruz; hala eta guztiz ere, gauza negatibotzat dute, eta beren egoera legeztatzeko prozesua luzea eta zaila dela uste dute.

Etorkin gehienak **lanean** ari dira. Emakumezkoak ostalaritzan, garbiketa lanetan eta neskame aritzen dira, gehienetan; gizonezkoak, aldiz, zerbitzuen sektorean, eraikuntzan eta industrian.

Etxebizitza edukitzea zaila da etorkinentzat, eskaintza eskasa delako batetik, eta bestetik, etorkinei buruz aurreiritzi eta topiko asko dagoelako. Oro har, alokairu erregimenean egoten dira, eta etxe berean lau lagun bizi dira gehienara.

Komunitatetik kanpoko etorkinek normaltasunez erabiltzen dituzte **osasun zerbitzuak**, eta ia gehienek dute osasun txartela.

Ama **hizkuntza** nagusia gaztelania da. Hizkuntza hori ezagutzen ez dutenentzat lehenetsuna du hori ikasteak. Ez dago ia euskaraz mintzatzen den etorkinik; hala ere, familia askok B eremuan, elebidunean, eskolatzen dituzte beren seme-alabak.

Etorkinen %58k **lehen mailako ikasketak** dituzte. %16k bigarren mailakoak eta %5,05ek goi mailako ikasketak. Aipagarria da %1,01 bakarrik dela ikasketarik gabea, eta alfabetatu gabeak %1,52 besterik ez. Sexuen artean ez dago desberdintasun nabarmenik.

Gehien egiten dituzten ikastaroak **lanbide ikastaroak** izaten dira. Horrek adierazten du, lehenbailehen lanean hastea dutela helburu nagusia.

1|8 Bizikidetzeta eta integrazioa

Pasaiaiko herritarrek aldez aurretik Europatik edo Espainiako estatuko beste lekuetatik etorritako etorkinen erreferentzia dute, beraz, gaur egungo migrazioa nahiko **normal** hartzen dute, itxuraz. Galiziatik eta Portugaldik etorriek Pasaiaiko biztanleria guztiaren barruan garrantzizko zatia hartzen dute, eta solidario agertzen dira etorkinen aurrean, baina uste dute beraiek ez zituztela etorkinek gaur egun dituzten laguntzak izan.

Bertako biztanleen eta komunitatetik kanpoko etorkinen arteko **bizikidetzeta** egokitze prozesuan dago oraindik gaur egun. **Bertakoak** ulerbera agertzen dira etorkinen aurrean, eta etorkinek bizi baldintza duinak eduki beharko lituzketela adierazten dute, pertsonak baitira. Baina gai praktikoak kolokan daudenean (esate baterako, lana eta etxebizitza), komunikabideek zabaltzen dituzten estereotipoak azaleratzen dira.

Etorkinek, bestalde, hartzen dituen gizarteari "pertsona" balira bezala tratatzeko eskatzen diote, eta ez "etorkin" gisa, bestela ez baita osatuko hirirtasun kontzeptu orokorra.

Bestalde, etorkinek uste dute bertako biztanleek **ez dutela** beren egoerari buruzko **informaziorik**, eta immigrazioaren gaia komunikabideetan era positiboan lantzeko eskaera egiten dute.



2 Atzemandako beharrak eta hobetzeko proposamenak

Bertako biztanleekin eta etorkinekin ikerketa-diagnosi honek iraun duen bitartean egin ditugun elkarrizketetan eta eztabaida taldeetan atzemandako beharrak eta proposamenak aurkeztuko ditugu atal honetan. Ekarpene horiek guztiak bitan banatu ditugu, batetik izaera orokorra dutenak, eta bestetik, udalaren jardun eremuaren barruan sartzen direnak, behar orokorrenetatik abiatuta hainbat eremutarako proposamenak zehazteko helburuarekin.



2|1 Behar orokorrak

Erkidegoko eta estatuko administrazioari dagokionez:

- Administrazioaren gidaritza gizarteratze prozesuan, immigrazioa gizarterari oro har eragiten dion eta hura inplikatzeko duen fenomeno bat.
- Borondate politikoa eta baliabide ekonomiko eta sozialak immigrazio planak aurrera eramateko.
- Politikariak immigrazioak dakarren aberastasunaz jabetu behar dira.
- Erakundeen, gizarte eragileen eta elkarten arteko koordinazioa, denak batera etorkinen egokitzapenari eta sustapenari aurre egiteko.
- Berdintasuna zentzu guztietan, baita lan mundura sartzeko ere, eta ekimen positiboaren garapenean.

Udal administrazioari dagokionez:

- Udalaren gidaritza integrazio prozesuan
- Udalaren parte hartze handiagoa — gainerako erakundeekin batera — etorkinen integrazio prozesuan

2|2 Proposamen orokorrak

Erkidegoko eta estatuko administrazioari dagokionez:

- Tresna eta bide egokiak sortu etorkinen integrazioa osoa izan dadin gizarteran, lan munduan eta alderdi pertsonalari dagokionez.
- Neurri espezifikoak hartu bereizkeria orori aurre egiteko.
- Aniztasuna errespetatu.
- Sentsibilizatu gizarte kontzientzia sustatzeko eta gizarte kohesioa bultzatzeko.
- Immigrazioari buruzko azterketa-diagnosiak egin, egoera horren errealitatea ezagutarazteko.
- Laguntza eman etorkinen jatorrizko herrialdeetako bizi kalitatea hobetzeko, garapenaren aldeko kooperazioaren bitartez.

2.3

Harrera eta laguntza

Udal administrazioari dagokionez:

- Esku hartze guztietan, udalek saihestu egin behar dute etorkinen aldeko lehentasuneko tratua, eta gainerako en eskubide eta betebeharrak berdina dituzten herritar gisa hartu.
- Gizarte ehuna osorik hartzen duten sareak osatu, eta koordinazioa bultzatu, lan taldeen bitartez, etorkin elkarteetan, GKEen, ikastetxeen, auzo elkarteetan eta abarren artean.
- Banakako neurriak hartu, osasunaren, hezkuntzaren eta etxebizitzaren alorrean batez ere.

Alor honetan dauden beharrak bi izenburu hauen bitartez labur daitezke: baliabide gutxi eta informazio falta:

Baliabide gutxi:

- Diru laguntzak eskasak dira biztanleentzat oro har, eta etorkinentzat bereziki, eta beti ez dituzte oinarriko beharrak asetzen, are gutxiago tartean adin txikikoak edo jaioberriak daudenean. Aurrekontuetan ahalegin berezia egin behar da zentzu honetan.
- Diru laguntzetara jotzeko baldintzak malgutu egin behar dira biztanleentzat oro har, behar larria duten kasuetan bederen.

Informazio eta orientazio falta:

- Etorkinentzat dauden baliabide eta zerbitzuak ez dira, oro har, ezagutzen, bereziki udalak eskaintzen dituen zerbitzuak;
- Komunitatetik kanpoko pertsonentzat udalak dituen informazio guneak ez dira ezagutzen, bertan informazioa eta orientazioa jaso dezakete eta gidak edo liburuxkak jaso ditzakete beren jatorrizko hizkuntzan;
- Ez dago etorkinen eta informazioa eta aholkularitza zerbitzuaren artean solaskide gisa jarduteko zeregina betetzen duen udal erakunde sarerik.

Proposamen orokorrak:

- Dauden zerbitzuak egokitu, **harrera eta arreta mekanismoak eta informazio zerbitzuak** hobetzeko helburuarekin, hirian hainbat harrera bide ezarriz.
- **Arrakasta izan duten adibideak** erakutsi eta **erreferentzia positiboak eman** etorkinak ez dezaten beren burua bakarrik edo bakandurik ikusi gizartearen eta lan munduan txertatzea eragozten duten oztopoen aurrean.

Proposamenak udalaren eremuan:

- Etorkinei informazioa eman **eroldan izena emateko** eskubideari buruz.
- Ahal dela, gaztelaniaz ez dakiten iritsi berriei harrera beren hizkuntzan egiteko aukera eman, era horretara, hasieratik bertatik elkar ulertuko baitiote orientatzaileek eta etorkinek, eta erreferente bihurtuko dira udalerrian integratzeko, beren aukeren, eskubideen, eta abarren informazioa emango baitiote.
- Gaiarekin zerikusia duten estamentu guztien arteko **koordinazioa** sustatu.
- **Elkar guneak** sortu, etorkinen bakardadea eta isolamenduari aurre egiteko.

2|4

Lan merkatua

Alor honetan behar nagusia **lan mundura sartzeko aukera erraztea** da, ekimen hauen bitartez:

Proposamen orokorrak:

- Etorkinek lanaren alorrari buruz duten informazioa hobetu.
- Enpresetan sentsibilizazioa eta aholkularitza bultzatu, etorkinak kontratatzeke aurreiritzi edo beldur ugari baitaude, besteak beste, egoera juridiko-administratiboaren ondorioz.
- Neurriak hartu etorkin langileen neurriz gaineko esplotazioa saihesteko.
- Lan kualifikatuak edo lan baldintza hobekiak edukitzeko aukerak erraztu.
- Enpresa berriak eratzeke laguntza eman, autoenplegua sustatu.



Proposamenak udalaren eremuan:

- Etorkinen integrazioarako ildoak landu Gizartean eta Lan munduan txertatzeko Batzordean. Batzorde hau osatzen dute: eskualdeko lau Udaletako Gizarteratze saileko teknikariek eta OARSOALDEA S.A. Eskualdearen Garapenerako Agentziako teknikariek. Agentzia hori eskualdeko udalek sortu zuten enplegu politikak diseinatu eta aurrera eramateko.
- Integrazioaren alorrean sakondu behar diren ildoak honako hauek dira.
 - 1.- Etorkinen ezaugarri espezifikoak Gizartean eta Lan munduan Txertatzeko Ibilbideen diseinuan sartu.
 - 2.- Txertatzeko ibilbideetan zer profil erregularizatu litezkeen aztertu.
- Haurtzaindegi gehiago sortu herritar guztientzat, etorkinak barne, beren seme-alabak lanaldiak irauten duen bitartean han uzteko, edo bestela, osatu neska-mutilen zaintzan laguntzeko sarea; era horretara, seme-alabak dituzten emakume etorkinak errazago sartuko lirarteke lan munduan.

2|5

Etxebizitza

Lana bilatzearekin batera, **etxebizitza duin bat edukitzea** da behar premiazkoenetako bat pertsona ororentzat. Herritar guztiek dituzte etxebizitza bat edukitzeko zailtasunak, eta zailtasun hori handitu egiten da etorkinen kasuan, etxebizitzaren jabeke aurreiritzi asko baitituzte haiei buruz.

Proposamen orokorrak:

- Zabaldu **premiazko ostatu aukerak**, askotan erabat beteta egoten baitira. Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen da egonaldia luzatzea edo ostatu emateko zentro berriak sortzea.
- **Etxebizitza sozialen politika landu biztanle guztientzat, oro har**, eta etorkinentzat bereziki, etxebizitza edukitzeko aukera izan dezaten (alokairuan zein jabetzan).
- Etorkinen kasuak banan-banan baloratu eta **ostatua bilatzeko laguntza** eskaini.
- Higiezin agentzientzat, etxebizitza dutenentzat eta biztanle ororentzat, **sentsibilizazio prozesuak** inplementatu; erakutsi, adibideen bitartez, estereotipoak ez dutela oinarrikerrealtatean. Gehiago dira ongi irten diren alokairuak arazoak sortu dituztenak baino.

2|6 Hezkuntza eta formazioa

Proposamenak udalaren eremuan:

- Eskumen handiagoa eskatu a udalarentzat etxebizitzaren alorrean.
- Udalek **etxebizitza sozialak** sortu, babes ofizialeko etxebizitzak kaltetuenentzat, edozein dela ere jatorria.
- Neurriak hartu etxebizitzetan pilaketarik gertatu ez dadin.

Hezkuntzaren alorrean ekimen hauek sustatzeko beharra ikusi da:

- Helduen irakaskuntzari dagokionez, baliabide gehiago jarri (hizkuntzak –gaztelania eta euskara— eta eska dezaketen beste eduki batzuk).
- Euskara ikastea bultzatu; etorkinei euskara ikastea komenigarria dela ohartarazi (etorkizunari begira lan munduan txertatzeko eta udalerrian bizikidetzatza hobetzeko), eta horretarako aukerak eskaini, etorkinentzat doako ikastaroak antolatuz.
- Formazio Planak egin.
- Ikasketak baliozkotzeko oztopoak ezabatu.

2|7 Alor juridikoa

Proposamen orokorrak:

- Atzerritarren Legeari buruzko kanpainak beharra, bertakoek zein etorkinek jakin dezaten zer egoeratan dauden etorkin asko eta asko.

Proposamenak udalaren Eremuan;

- Etorkinen eskakizun premiazkoenak bildu, batez ere, paperik gabe daudenena.
- Etorkinen datuak babesten direla zaindu.





218

Herritarren parte hartzea

Proposamen orokorrak:

- Etorkinen iritzia kontuan hartuko duen parte hartzeko mekanismo demokratiko bat osatu.

Proposamenak udalaren eremuan:

- Etorkinak elkar daitezten bultzatu, eta haiek osatutako elkarteak udalerriko elkarteetan zein sortu litezkeen talde kultural berrietan sartu.
- Etorkin elkarteek erabaki guneetan ordezkaritza handiagoa izan dezaten sustatu.

219

Abegi gizartearen sentsibilizazioa

Bertako herritarrek eta etorkinek **elkarren berri izan behar dute eta elkarbizitza hobetu** egin behar da; abiapuntu hartu behar da integrazioa prozesu duala dela, hau da, bi alderdiak, errespetuan eta begikotasunean oinarri hartuta, elkar ezagutzeko prest agertu behar dira.

Proposamen orokorrak:

- **Elkar guneak** eskaini behar dira, bertako biztanleek eta etorkinek elkar ezagutzea eta bi kulturen arteko trukea errazteko.
- Bertako herritarrak etorkinei buruz **solidario** izan daitezten bultzatu behar da, eta **sentsibilizazio** lana egin behar da udaletatik bertako biztanleekin, kontuan hartuta etorkinak ere herritarrak direla eta horien alde egiten denak bertako herritarrengan ere ondorioak izango dituela.
- **Integrazioaren aldeko sentsibilizazio** ekimenak egin, **immigrazioak duen irudi negatiboa baliogabetzeko** eta kulturanihtasunaren edo kulturartekotasunaren eta aniztasunaren alderdi positiboa erakusteko, eta orobat, etorkinek tokiko gizarteari egiten dizkioten ekarpenen berri emateko.

- Betoa jarri diskriminazioa eta xenofobia bultzatzen ezagutzen orori.

- **Komunikabideei** immigrazioaren gaia modu positiboagoan landu dezaten eskatu.

- Kulturaren alorrean, etorkinen heterogeneotasuna eta berezitasun etnikoak hartu behar dira kontuan, eta globalizazioa saihestu behar da.

Proposamenak udalaren eremuan:

- Pasaiaiko udalerrira iristen diren etorkinen ohiturak eta aniztasun kulturala ezagutzeko, sentsibilizatu egin behar dira bertako biztanleak, eta baita alor horretan hezi ere.

- Etorkinen ezaugarriak eta beharrak ezagutu eta zabaldu behar dira eskualdez eskualde.

Lan hori errazteko proposamen hauek egiten dira:

- Biltzen: **kultur arteko bitartekotza** zerbitzua erabili eta aplikatu
- **Sentsibilizazio kanpainak** eta **jarduera kulturانيتzak** egin bi kolektiboetara begira
- Jarduera kulturalak antolatu etorkinen ohiturak ezagutarazteko.

ERANSKINA: Elkarrizketatu ditugun elkarte eta erakundeak

Etorkin elkarteak

Adiskidetuak
Esperanza Latina
Gipuzkoako Senegaldarren Elkartea

GKE

Emaus Fundazioa
Caritas
Trintxerpe-San Pedroko Parrokietako
Caritas
Gurutze Gorria

Beste erakunde batzuk

SARTU
OARSOALDEA, S.A.
Zimentarri, Aukera proiektua
Argabe

Ikastetxeak

Karmengo Ama, herri eskola
Pasaia-Lezo lizeoa
Pasaiaiko Lanbide Hastapenerako
Zentroa
Itsas Arrantza Institutu Politeknikoa
Goi Mailako LH Institutua, Don Bosco
EPA Ategorrieta
EPA Altza-Herrera

Gizarte-kultura elkarteak

Boveda, gazte elkarte
Portugaldar Kluba
Laurak Bat

Administrazioa

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza
ordezkaritza Gipuzkoan
Pasai San Pedroko Osasun Zentroa
HELDU
Ertzaintza
Foru Aldundiko Giza Eskubideen Saileko
Arduraduna
Irungo Immigrazio Teknikaria

Udal sailak

Gizarte Ongizatea
Kaleko hezitzailea
Kultura eta Hezkuntza
Euskara
Udaltzaingoa

Alderdi politikoak

PSE-EE
EAJ-PNV
EA
PP
EB-IU

Sindikatuak

CCOO
UGT
LAB

Higiezin agentziak

INMO F3
Etxeko